

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko abenduaren 8a


Egunkaria

Gehigarri honetan



Areso • Musika, taloa, pilotariak eta besta giroa izanen dira gaur Euskararen Egunean

Francisco Almirantearena • «Urrobi patzuegoaren ekimenek konfiantza eta itxaropena piztu dute gazteengan»



• MIKEL SAIZ

Aurtengoa
laugarren
ikasturtea dute
Aitzoaingo Artsaia
Musika Modernoko
Eskolan, eta

dagoeneko badituzte 300

bat ikasle. Hala ere, agintariek ez dute
Artsaiako eskola hezkuntza errealitatetzat
jotzen. Kontua da Artsaiako eskolan ez
dutela irakasten letra larriz idatzi ohi den

musika klasiko hori. Artsaian musika modernoa
irakasten dute, hau da, herritar gehienie gustatzen zaien
hori. Eta, hala ere, ez dituzte kontuan hartzen. Akaso,
euren punteatzeak zaratatsuagoak izan beharko lukete.

Musika modernoaren

punteatzeak

Artsaian



Areso •

Hamaika arrazoi ongi pasatzeko

Musika, taloak, pilotariak eta besta giroa izanen dira gaur Euskararen Egunean

Goizeko 11:30ean hasiko dira Aresoko VIII. Euskaren Eguneko ekitaldiak. Guraso Elkartekoek egun osorako antolatutako ekitaldietan herriko txikienak eta gaztetxoek izanen dira protagonista nagusiak.



Aresoko txikienak eta gaztetxoek izanen dira protagonista gaurko Euskararen Egunean. • ELI BELAUNTZARAN

DANTZA EGITEN, TRIKITIXA eta panderoa jotzen, marrazkiak egiten eta txukun margotzen ikasteko hamaika ikastaro antolatu ditu azken urte hauetan Aresoko Guraso Elkar-teak herriko txiki eta gaztetxo-entzat. Urteik urtera berritzen joan dira, eta aurten, esaterako, aipatutako ikastaroez gain, abesti zaharrak eta bestelakoak ikasteko aukera izan dute.

Euskararen Eguna egun aproposa izaten da urte barruan ikastaro horietan egiten dena erakusteko. Ikastaro-

ak antolatzeko, baina, Joxepi Marzol Guraso Elkarteko lehendakariak esan duenez, dirua behar da. Horregatik, urtero bezala, Eguberrietako saski oparoa zozketatuko dute.

Ateratako sosekin antolatzen dira Areson hainbat ekitaldi eta, horien artean, gaur ospatuko den Euskararen Eguna. Goizeko 11:30ean herriko trikitilariak kalejiran ibiliko dira. Bukatutakoan, beraientzat antolatu diren jokoetan parte hartuko dute. Bestalde, herriko pilotariak erakustaldia eskaintzen duten bi-

tartean, ikusleek hotzari aurre egiteko taloa eta salda beroa izanen dute. Ondoren, Pake Toki elkartera bazkaltzera joan aurretik, Aresoko dantza taldeko txikienak ariko dira. Jaione eta Mikel Olazabal arduratuko dira bazkaldarrak alaitzen.

Leitzaldeko Euskara Zerbitzuak ere lagundu nahi izan die Guraso Elkartekoei, eta aurten Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariak gonbidatu ditu egun hau Areson pasa dezaten. Bertsolariak saioa eskaini ondoren, giroa ez da

hoztuko. Izan ere, dena prest dago, VI. Trikitixa Txapelketarako. Bertan, Oihana Nieto eta Iñaki Goikoetxea herriko gazteek hartuko dute parte beste hainbat bikoterekin.

Euskararen Eguna amaitutakoan, beste eginkizun batzuekin hasi beharko dute aresorrek. Izan ere, abendua ziztu bizian joaten da eta konturazterako Eguberriak iristen dira, eta ordurako jaiotza jarriko beharko dute. Laster, Olentzero etorriko da, eta ikazkina menditik jaisterako herria apaindu beharra dago; eskolako parkean, ohiko izkinan, ume eta gurasoek egindako irudi bitxiko jaiotza muntatu eta egin beharreko guztia egin dela ikusterakoan, Olentzerok pozik jarriko ditu opariak leihoan utzitako zapatetan.

→ Eli Belauntzaran

Araitz-Betelu •

Urteroko kultur astea

Bihar bukatuko da herritarrek horrenbeste estimatzen duten kultur astea

ARAITZ-BETELU HARANEAN, bestetatik aparte, ez da kultura ekitaldi aipagarriarik egiten. Horregatik, herritarrek gustura itxaroten dute urteroko kultur astea. Aurtengoa iragan ostiralean hasi eta bihar bukatuko da. Kultur astea antolatu duen Euskera Batzordeko kide Andoni Tolosak esplikatu duenez, «jendeak oso gustura hartzen du aste hau». «Jendeak badaki aste honetan urtero baduela zerbait egiteko. Eta urtero-urtero jendea biltzen da gauzak antolatzera».

Kultur astearen baitan, gaur Kollins Klown taldeak haur eta helduentzako antzezlanak eskainiko du 12:30ean, Betelun. Gero, 22:00etan, Ruper Ordo-

rikaren kontzertua izanen da Azkaraten.

Eta larunbatean, 16:00etan abiatuko da Mailope Lasterka Madoztik, eta Atallun bukatu. Mailope Lasterka AEKren Korrikaren antzekoa da. Herritarrek Larraun eta Araitz-Beteluko herrietan barna aritzen dira lasterka, Mailope aldizkariaren alde. Kilometroak elkarrekin erosten dituzte. Andoni Tolosak dioenez, Mailope Lasterketa ekimena antolatu dute, aurten hirugarre aldikotz, «Mailope aldizkaria laguntzeko eta horren inguruan giroa sortzeko».

«Aldizkari honek irudi ona du bailaran, mundu guztiak irakurtzen du, edo begiratu gu-

txienez», dio. Mailope herri aldizkaria hilean behin edo berrogei egunen buruan karrikatzen dute, eta bertan ez dago profesionalik lanean. «Bakoi-tzak ahal duenean, bere denbora librearen arabera, eta eskaini nahi dionaren arabera egiten ditu bere artikulak, eta gero Urko Aristiri ematen dizkiogu maketatzen», erran du Tolosak.

Mailope Lasterka Atallun bukatuko da, eta Atallun bertan, Arruñe elkartean, herri afaria egingen dute larunbatean, 21:30etik aurrera, eta, ondoren, gaupasa izanen da Etxabe anaiekin, goizaldea arte.

→ Asier Azpilikueta

Aezkoa •

Batzordeak aurten ez dio kasurik egin batzarrari

AEZKOAKO IBAXAREN Batzordeak iragan astelehenean egin zuen aurrekontuen gaineko batzarra. Batzarran aetzek beren iritzia emateko aukera dute. Herritarren iritzia ez da loteslea, baina Batzordea beharturik dago hori entzutera, Aetzak taldeko Mikel Barbere-nak NAFARKARIari azaldu dionez. Hortaz, batzarrak zerbait erran dezake, baina Batzordeak bestelako erabakia har dezake. Orain arte Batzordeak kasu egin dio herritarrek batzarrean hartu erabakiari. Baina iragan asteleheneko batzarrean bilduriko ehun bat aetzek ezin izan zuten bozik eman 1999ko kontuen eta 2000ko aurrekontuen gainean. Batzordean gehiengo osoa

duen Mendilatz taldeko kideek alde egin baitzuten herritarren erabakia zein zen jakin gabe, batzarraren erabakia loteslea ez zela gogorarazirik. «Ez zuten botaziorik egin jakin bazekitelako galduko zutela», erran du Barberenak. «Hortaz, Mendilatz taldeak ohitura apurtu eta ez dio batzarreari kasurik egingen». Aurtengo aurrekontuetan bi partida gatazkatsu daude: San Joakin ermitarena eta igerilekuena. Aetzak taldeak eskatu du bi partida horiek aurtengo aurrekontuetatik kentzea eta hurrengo urtekoetara pasatzea. Baina, dirudienez, Batzordeak aurrekontuak onartuko ditu hurrengo bileran.

→ Asier Azpilikueta

Lizarra • Maria de Maeztu


IV. literatur saria



Lizarrako Emakumeen Asanbladako kideak eta epaimahaiko kideak, sari banaketaren ekitaldian.
● KRISTINA BERASAIN

Ibis Sepulveda txiletarrak irabazi du aurten literatur lehiaketa

Una lluvia de estrellas idazlanarekin lortu du Ibis Sepulvedak Lizarrako Emakumeen Asanbladak antolatzen duen Maria de Maeztu literatur lehiaketako lehen saria. Aurten lehiaketaren laugarren aldia izan da, eta zazpi lan baino ez dira aurkeztu, eta euskaraz idatzitako testurik ez da agertu.



«GIZAKIAK EGUN BIZI DUEN egoeraren isla da idatzi dudana testua; abagune zaila da hau, horregatik, Laurak, nire testuko protagonistak, bertzelakoa izan nahi du, ederragoa, atsegina, sotilagoa... maitagarria azken finean. Horren atzean, noski, beldurrak eta estutasunak ezkututzen dira, eta bere bizitza lanez eta hondamenez janzten

da». Horrelaxe laburbildu du Ibis Sepulvedak saritu berri dioten *Una lluvia de estrellas* testua. Biziki hunkituta jaso zuen Lizarrako Emakumeen Asanbladak antolatzen duen Maria de Maeztu literatur lehiaketako aurreneko saria. «Askotan aurkeztu izan ditut nire lanak han eta hemen antolatzen diren lehiaketetara, baina aitortu behar dut

hau izan dela nire lehenengo saria, eta hunkigarria da oso niretzat», esan zuen 75.000 pezeta-ko diru saria jaso ondoren. Ibis Sepulveda Txilen jaio zen, duela 37 urte. Hogei urterekin gaur egun bere senarra den Pierre Viguie frantsesarekin Pariserat joan zen bizitzera. Duela zazpi urtetik Bordelen bizi dira, eta bertako Cervantes Institu-

tuan izan zuen lehiaketa honen berri. «Liburutegiko mahaietan dauden paperak begiratzeko ohitura daukat eta hantxe ikusi nuen Maria de Maeztu literatur lehiaketarako deialdia, eta asko pentsatu gabe aurkeztu egin nintzen».

Komunikatzeko beharra sentitzen duelako idazten du Ibisek: «Idaztea desio bat da, bulkada bat. Jendeari gauzak esateko beharra sentitzen dut, nire barruan sentitzen ditudan gauzak. Halaber, niretzako idaztea nire sus-traiak mantentzeko modu bat da, gaztelaniaz idazten dut nire identitatea mantentzearen».

Maria de Maeztu IV. Literatur Lehiaketara zazpi idazlan baino ez dira aurkeztu, eta guztiak gaztelaniaz. Lizarrako Emakumeen Asanbladako kideen hitzetan pena izan da aurten euskarazko lanik aurkeztu ez izana. Hurrengo urtean euskarazko zein gaztelaniazko testuak egotea espero dute.

Lehiaketako epaimahaia Myriam Munarriz kazetariak, Jose Javier Alfaro idazleak, Marina Aoz literatur aldizkariaren zuzendariak eta Iosu Reparaz Lizarra Ikastolako zuzendariak osatu dute. Sari honen inguruan, azkeneko asteetan emakumea eta literatura aztergai izan duten zenbait hitzaldi antolatu dituzte zenbait idazleren parte-hartzearekin.

→ Kristina Beriain

herri aldizkariak Edurne Elizondo

'Galdesakan' eta Gerra Zibila

Bierrik elkarteko lan talde batek Sakana-ko historia, ohitura, kirol, kultura, euskara eta naturari buruzko 1.500 galdera prestatu ditu galde-erantzunetako mahai jokorako. *Galdesakan* jokoa da **Guaixe** aldizkariako azaroko aleko gai nagusia. Eskualdeko historiaren, kulturaren eta bitxikerien berri jakin jakin eta ikasteko parada eskaintzen du jokoa. Esate baterako, «Nori dago eskainia Irurtzungo eliza?»; edota «zein itsasotara joaten dira Sakana ibai eta erreketako urak?». **Guaixe** aldizkarian diotenez, «Gure ingurunea gero eta gutxiago ezagutzen dugula dirudien garaian; askotan urrutiko

intxaurren berri zehatza eta osatua izaten dugulako telebista, irrati, prentsa, internet eta halakoen bidez; Bierrik elkartek Sakana ezagutu eta bide batez ongi pasatzeko aukera eman nahi du». Mahai jokoa-aren oholak Koldo Arnaz margolariak egin du. *Galdesakan* Eguberrietarako salgai egonen da.

Bere aldetik, **Ttipi-Ttapa** aldizkariak moda desfileak ditu aipagai azaroko azken alean. Baina zenbaki honetatik aipagarria da batez ere Lurra gehigarriak dakarren erreportaia sakona Espainiako Gerra Zibilaren inguruan. Baztan-Bidasoan eta Sara aldean Errepublikak eta

1936ko Gerra Zibilak herriz herri izan zuten eragin larria... — luze eta zabal aztertzen dituzte landa lurraldeari buruzko gehigarri honetan. Era berean, gerra hurbiletik bizi izan zutenen testigantza hunkigarriak jaso dituzte, hala nola Bearzungo Urruska baserriko Teresa Iribarrenena: «Hemen (Baztanen) arront jende guti zen politikaz zekiena. Karlistak eta liberalak aipatzen ziren. Karlistak eskuinekoak ziren, elizaren aldekoak, eta gu denak elizaren alde itziak baiginauden, uste genuen karlistak denak onak zirela. Gero ohartu ginen gauza txarrak ere egiten zituztela eta ez zirela arras onak.



urdairen mintzoa

Xabier Larraburu

Karakorun

Bere azken eguna izan behar zen hartan, mendizaleak laugarren eta azken kanpamentua utzi aurretik glukosa prestatu eta, xiringa baten bidez, zuzenean besoko zainean sartu zuen. Gero sherparekin batera dendatik atera eta gailurrerantz abiatu ziren, Txekiarren Bidetik, bide arruntetik, dagoeneko hogeita bi urte zituen bidetik. Ordu erdira, mendi-lepora iritsi zirenean, espero bezala indartsu sentitzen zen. Seguru asko sodioaren maila, astean hartutako pilulei esker, % 75 edo 70ean ibiliko zen. Gogoan zuen Alemaniako mendizale batzuen datua. Alemaniarrak haiek mendi hori bera igo eta sodio kopuruaren % 35ekin onik bueltatu ziren. Beraz, itxaropentsu izateko arrazoiak bazituen. Dena den, urduri, tontorrerako maldan aminoazidoen kaxan agertzen ziren kontraindikazioak oroitzen saiatu zen etengabe, eta oxigenoaren txibatua behin eta berriz jo zuen, apurtua egongo ote zen beldurrez. Azkenean dena ongi atera eta gailurrera iritsi ziren, han Nestle, Kodak eta BBKren ikurrak zabaldu eta elkarrekin kamera txandakatu egin behar ziren argazki guztiak hartu zituzten. Menditik jaisten ari zela, estropozu egin eta amildegi batetik erori zen. Sherparen begirada harrituaren aurrean arroka batzuen artean apurtu eta galdu egin zen betiko. Sekulan ez zuten gorputza jaso. Han dago oraindik, inguru haietako gelditasun berarekin. Leku horretan urte osoan itzala da nagusi, baina batzuetan, udaberrietako arratsaldeetan bereziki, eguzkia mendiaren Hegoaldeko tontorretik agertzen denean, bere aurpegia argitzen da eta inguru haietatik gailurretik bueltan espedizio bat izatekotan gorputza ikusten ahal du, dagoeneko famatua den alboko arroka batekin osatzen duen L. Itxurazko irudi bat egiten. Begiak itxiak edo zabalik ote daukan garaiera horretatik ikustea ezinezkoa denez, sekula jakinen ez dugun gauza bat da hori. ●

Hendrix Bachen ordetz

Aitzoingo EMMA eskolak lau ikasturte daramatza musika modernoa erakusten

Aitzoingo industrialdean dagoen Artsaia Musik Klubaren barnean Musika Modernoko Eskola (EMMA) sortu zuten 1997an. Badituzte 300 bat ikasle, baina agintariek ez dute eskola hezkuntza errealitatetzat jotzen. Kontua da Artsaiako eskolan ez dutela irakasten letra larritan idatzi ohi den musika klasiko hori. Artsaian musika modernoa irakasten dute, hau da, herritar gehieni gustatzen zaien hori.

DEMAGUN, IRAKURLE, BATERIA JOTZEN ikasi nahi duzula, eta, gainera, heavy metala gustuko duzunez, talde heavyen gitarra jotzen ikasi nahi duzula. Kontserbatorioetan holakorik ez dizute irakatsiko. Hor-taz, hiru bide dituzu: zeure kabuz ikastea, irakasle partikular baten klaseak jasotzea edota musika modernoko eskola batean matrikulatzea. Nafarroan horrelako eskola bakarra dago: EMMA, hain zuzen ere.

Lehenik eta behin, EMMAkoek galdetuko

dizute ea etxean bateria duzun. Hala ez bada, ez matrikulatzeko aholkua emanen dizute. Izan ere, astean behin bakarrik jotzen baduzu, ez duzu inoiz ikasiko. Benetako lana etxean egin behar da. Klaseak informazioa eskuratu eta okerrak zuzentzeko dira. Dena dela, bateria erosteko aukerarik ez baduzu, Artsaian badute ikasketa bonu bat, zeinaren bidez 5.000 pezeta truke aste barruan nahi dituzun ordu guztiak sar ditzakezun bertako bateriak jotzen.

Hiru ikasketa sistema

Demagun etxean bateria baduzula. Orain ikasketa sistema hautatu beharko duzu. EMMA hiru dituzte aukeran. Ilusio eta gogo handiak izateaz gain, denbora aski eta sobera dutenendako sistema profesionala dute; hiru edo lau ordu astean. Ikasteko modurik ordenatuena da, zuzenena. Garestiena ere bada, noski.

Bateria jotzeko horrenbeste denbora ez baduzu, hartu sistema pertsonala: klase bat astean. Eta dagoeneko bateria jotzen baduzu, baina gauza zehatz batzuk ikasi nahi badituzu —Metallicako Lars Ulrich-ek bezala menderatzea bonbo bikoitza edota Sepulturako Igor Cavalerak bezain azkar jotzea—, sistema librea aukeratu beharko zenuke. Horren bidez irakaslearen-gana joan zaitezke eta gauza zehatzak eskatu.

Mikel Morote Artsaia Musika Modernoko Eskola-ko zuzendariari galdetu diogu, edozein sistema aukeratu, zenbat kostatuko litzazigukeen bateria jotzen ikastea: «Hiru hilabetetik hogeita hamar urtera», erantzun du. «Denbora ez doa sistemaren arabera, ikaslearen interesaren arabera baizik. Instrumentu bat jotzen ikasteko klaseek ikasketa prozesuaren %30 izan behar dute. Ikasleak jo eta jo egin behar du, kon-tzertuetara joan behar du, metodoak erosi, Interneten miatu, bururatzaren zai-ona egin behar du informazioa eskuratzeko. Eta klase-ek kontsultiboak izan behar dute, besterik ez. Bertan bi-dean jarriko dute ikaslea».

Mikel Morot

EMMAKO ZUZENDARIA

«Musika ez da soilik lebitarekin ikasten dena»

ARTSAIA MUSIKA MODERNOKO ESKOLAN (EMMA) laugarren ikasturtea dute, eta 300 bat ikasle dituzte, baina ikastetxeko zuzendaria kexu da ez dituztelako hezkuntza errealitate gisa hartzen.

■ Nafarroako Gobernu Kultura Zuzendaritzarekin hitzarmena duzue, baina zuek Hezkuntzarekin izan nahiko zenukete. Zergatik?

Denbora dezente daramagu proiektuak aurkeztzen, baina Administrazioari gurea oraindik ez zaio sendoa iruditzen, ez gara euren planetan sartzen. Ez gaituzte hezkuntza errealitate gisa hartzen. Kontua da munduan kontsumitzen den musikaren %7 soilik dela musika klasiko, eta administrazio publikoaren baliabide gehienak musika klasiko bideratzen direla. Begiak ixten dituzte errealitatearen aitzinean. Gazte jendeak gustatzen zaion musika ikasi nahi du. Eta argi dago 18 eta 25 urte bitartekoek zein musika entzuten duten, zein musika dantzatu edo erosten duten. Horregatik, deigarria da Administrazioak

batez ere musika klasikoera jotzea.

■ Eta zuek musika hezkuntzan lekua baduzuela uste duzue.

Bai. Bartzelonako jazz aretoak hogeitaz urte eman ditu lanean musika modernoa irakasten. Haiek erakutsi dute beste hezkuntza modelo bat badagoela. EMMA sistema horren antzekoa abiatu du. Han Musika Modernoaren titulazioa ematen dute Kataluniako Lanbide Berrien Institutuaren bidez. Bartzelonakoa eredutzat jar-tzen diogu hemengo Administrazioari, baina oraingoz ez dute kasurik egin. Ez gure horrenbeste indar egin behar errealitatearekin garelako frogatzeko, izan bagarelako. Eurek ikusi beharko lukete zer duten inguru-ruan eta zer eskatzen dien gazte jendeak. Musika ez da soilik lebitarekin ikasten dena, eta guk gure lekua dugu musikaren hezkuntzan.

■ Zer iritzi duzu musika eskola klasikoaren gainean?

Nire ustez, musika eskola klasikoetan dagoen porrota izugarria da. Haurrak musika ikastera sartu eta biziki aspertzen dituzte. Musika zer den eta musikaren ko-

munikazioa zer den gaizki irakasten diete.

Eta horregatik lortzen dituzte horren emaitza eskasak. Kontserbatorio-ko zenbat ikasle dute hogeitaz urte baino gehiago? Oso gutik. Eta zenbaterik hasi dute musika eta gero utzi? Milakak. Gazteek Bach irakasten diete, baina gero, par-randan, musika elektronikoa entzuten dute, edo Ricky Martinen diskoak erosten dituzte. Eta orduan pentsatzen dute gauza bat dela beraiek entzuten dutena eta beste gauza bat dela musika ikastea. Eta musika ikastea aspargarria iruditzen zaie. Baina musika oso dibertigarria da. Kontua da hizkuntza eta metodo zaharkituekin irakasten dutela. Egunen batean onartu beharko dute euren okerra. Orain jendeak beste gauza batzuk ikasi nahi ditu eta beste modu batez. Eta EMMA orain arte izan den musika sistemaren osagarri izatea nahi dugu.



Ikasleen parte-hartzea

Banaka edo binaka ematen dituzte musika tresnak jotzen ikasteko klaseak. Baina badira beste klase osagarri batzuk edozein instrumentutako ikasleek jasotzen ahal dituztenak eta taldeka ematen direnak, hala nola harmonia modernoa edo entzumenaren heziketa. Gainera, badira «laboratorio» izeneko klase tematikoak; adibidez, gitarra blues moduan jotzen ikasteko.

Horiek klase arruntak baino merkeagoak dira. Taldeka praktikatzeko klaseak ere badituzte, eta kurtso barruan hainbat musikari hurbiltzen zaizkie klase kolektiboak ematera. «Horren guziaz bidez jendeak parte hartzea nahi dugu, giro musikala sortzea», adierazi du Morotek. Hau ez da irakaslearen etxera joatea, klasea jasotzea eta kito. Informazioa trukatzeko eta mugimendu gehiago dago hemen». Nahikoa da EMMAren edozein klasetan sartzea ikusteko ikasleek behin eta berriz galdetzen diotela irakasleari dituzten duda guztiak.

«Hendrix ere maisua zen»

Moroteren aburuz, ez da egia musika kontserbatorio-

etan «soilik» irakasten denik. «Kontserbatorioetan musika estilo bakarra jorratzen dute, musika klasiko», dio. «Guk musika tresna erabiltzen irakasten dugu, eta gero musikaria espezializatuko da nahi duen musika motan. Eta, gainera, saiatzeko gara musika irakasteaz batera, ongi pasatzen. Orain

arte musika ikastea hagitz astuna izan baita». Morotek ez du ukatzen Bach maisu handia denik, baina uste du bukatzeaz dagoen mende honetan ere badirela ikasteko moduko beste maisu batzuk. «Jimmy Hendrix, Paco de Lucia eta BB King maisuak dira, egungo hezkuntza sistemaren onarturik ez dauden instrumentuekin jotzen bazuten ere», esan du.

Musika modernoko eskola da EMMA, ez rock eskola. «Egia da, gure formazioagatik eta Iruñean gaudelako, gehiago hurbiltzen garelako rock mundura», dio Morotek. «Baina, hasiera batean, musika mota guztiak eskaintzen ditugu. Izan ere, lehen urrats bezala ikusten dugu gure eskola». Morotek dioenez, eskolakoek egun duten helburu nagusia Nafarroako Gobernu Hezkuntza Zuzendaritzarekin hitzarmena sinatzea da, ikasleei tarifak jaisteko. «Hau ez da eskola garestia, baina askok galdetzen dute ea zergatik Barañaino musika eskolan, errate baterako, hilean 5.000 pezeta ordaindu behar duten eta hemen, berriz, 10.000. Diru laguntzak nahi ditugu tarifak merkatzeko, edonork aukera izan dezan gustatzen zaion musika ikasteko».

→ Asier Azpilikueta

EMMAren datuak

■ Ikasleak

Aurten 500 ikasle goiti pasatu dira EMMAtik. Bestela, 300 bat ikasle iraunkor dade. Lau ikasturtetan %30eko igoera izan da. Ikasleak 18 eta 25 urte bitartekoak dira, erdiak langileak, eta beste erdiak ikasleak. Gehienek, EMMAra sartu aitzin instrumentu-tuta zuten, eta jotzen zuten. Zuzendariak dioenez, «ikasle euskaldun asko dago, baina, zoritxarrez, ezin diezaiekegu zerbitzu askorik eskaini, irakasle euskaldun bakarra dugu-lako».

■ Irakasleak

EMMA hiru irakasleekin abiatu zen: Mikel Morote baxu jolea, Julian Valverde gitarra jolea eta Luis Angel Telleria bateria jolea. Egun, hamasei irakasle daude. Denak dira musikari profesionalak, baina bik bakarrik

dute titulazioa, piano irakasleak eta kontra-baxukoak. Besteek ez dute euren musika instrumentuen titulurik halako titulaziorik ez delako. Esperientzia da euren titulua

■ Musika tresnak

EMMA gitarra elektrikoa, baxu elektrikoa eta bateria jotzen irakasten dute. Baina baita kantu modernoa, pianoa eta teklatuak, Afrikako perkusioa eta informatika musikala ere bai. Gainera DJ izateko klaseak ematen dituzte.

■ Instalazioak

Berez Artsaiarenak diren kontzertuen aretoa eta entseatzeko sei areto dituzte, baina baita klaseak banaka edo binaka emateko zazpi gelaxto eta taldeka emateko beste bi ere.

Joxemiel Bidador

Biktoriano Huiziren harreman tragikoez (II)

Badirudi Biktoriano Huizirena gorantz doan balioa dela. Iaz, ekaineko 24 eta 25 egunetan, Etxarri-Aranatzen bertan, bere euskal gramatikaren mendeurrena betezen zela eta, Euskaltzaindiak omenaldia egin zion, eta behiala ere Biktorianoren berri ematen duen artikulua berri zenbait agertu dira aldizkari espezializatuetan.



Biktoriano Huizik Euskara Elkargoko kidea eta orduko euskaltzaleen sokakoa ez izanagatik euskara maite zuten gutxiz gehien. Horren lekuko unean uneko gotzainarekin izan zituen arazo larriak euskara eta zela bide. Onartu behar da Biktoriano koxkorreko pertsona bazela, jenio txarrekoa ez esatearren, baina badirudi apezpikuekin izaniko tirabiren azpian euskarak berak pisu handia bazeukala. Hortaz, Iruñeko gotzainek ez zuketzen begi onez hartuko Huiziren jokaera ez liburu. Oliver Hurtado malagarraren ondoren (1875-1886) Antonio Ruiz-Cabal Rodriguez cadiztarra izan zen Iruñeko gotzaina. Ez oso maitatua, kargurik gorenak nafarrak ez zirenei ematen zizkielako, 1899ko abenduan dimisioa eskatu zuen, ohiko adio ofizialik gabe, bere agintaldiaren porrotaren erakusgarri. Biktorianoren liburu, berriz, ber urteko abuztuan atera zen karrikara, bere poltsikotik ordainduta, eta lehenbiziko orrialdeetan Elizaren ohiko baimen eta zentsurak ezarri gabe. Liburuan ezarri sarrertan ere, nahiz esplizitoki gotzainaren jarrera ez aipatu, implizitoki igar daiteke gotzain andaluziarrari eginiko salaketa, nola euskarazko sarreran, nola erdarazkoan.

Ruiz-Cabalen ostean apezpiku berria iritsi zenean, hau da, Jose Lopez-Mendoza y Garcia burgostarrak Iruñeko agintegoa bere egin zuenean, egoera ez zen ezertan ere aldatu Huizirentzako. Burgostik etorritako agustindar horrekin, bada, ez zitzaion Huiziri bere lana gozatu, ez eta aisatu ere, eta hasiera batean Etxarrin gertatzeko

emandako hitzari men egin gabe, Altsasura igorri zuen apaiz-laguntzaile, 1900eko irailaren 27an. Altsasutik Urdianera aldatu zuten, eta hor parrokiako ekonomialari zegoela, *Elizaguindeen zuzen-guin kontuskua* izenburupekoa eman zuen argitara Iruñeko apezpikutegiaren 1904ko aldizkarian. Honakoa Urdiaingo misioen aipamena dugu, laburra izanagatik ere, interesekoa dena, non bi orrialde eskasetan, 1903ko bukaera aldean Orkin eta Erbiti aita erreduktoristek Urdiainen eginiko misioaldien aipua ekarri baitzigen. Apezpikutegiko *Boletín Oficial Eclesiástico*

ren lana. Zoritxarrez, huraxek ez zuen segida sendorik izan beste apaizen aldetik, eta egia esan ez dakigu Huiziri zein neurritan min egin zion euskal erreseina hura argitaratzeak.

Urdiaindik 1904an atera zen Iraizotzera erretore joateko, baina Ultzaman ere arras denbora laburra eman zuen; izan ere, Lesakara aldatu zuten apez-laguntzaile lanetan berriz ere aritzeko. Apezpikutegiko agintariekin, beraz, zituen arazoak zirela bide, hau da, bere Sakana maitetik urruntzea eta apezpikuek euskararekin erakutsitako jarrerarengatik, Biktoriano Huizi Josulagunen ordenan sartu zen 1906ko otsailaren 23an.



1862ko maiatzaren 10ez geroz argitaratzen zen, eta karrikan izan zen lehenbiziko 40 urteetan ez zen testurik euskaraz ageri, harik eta 1903ko ekainaren 2an Arruitzen erretore zegoen Joxe Fermin Argiñarenak *Mayatececo illa Euskal-Erriari* izenburuko laburra igorri zuen arte. Baraibartar huraxek ireki ildotik, beraz, etorri zen Huizi-

la hogeitau urte eman zituen Biktoriano Huizik Lagundian, baina hortxe ere unaturik nonbait, 1925erako jada ez da Biktorianoren izena Lagundiaren katalogoetan agertzen. Ahanzbidea harturik-edo Kuba aldera joan zitzaigun Huizi berriz ere apez soil moduan.



panpilonia zirkus

Pello Argiñarena



Laurehun lagunek jotzen dute larrialdietara egunero. • MIKEL SAIZ

Iruñea ez da Chicago

Leihorik gabeko gela iluna. Laranja koloreko jarleku deserosoak. Paisaia berdeak koadroetan. Pentsamenduan eta esperoan. Isiltasuna nagusi. Bero itogarria. Botila bat ur atera dut freskagarrien makinatik. Ospitaleko larrialdien zerbitzuan, bertako zuzendariaren zain nago. Javier Sesma azaldu bezain pronto, haren bulegora joan gara.

Korridorean oinazea alde bietara. Neska gaztea aulki gurgildunean eserita. Suero botila zintzilik duela, agure zaharra ohatilan etzanda. Medikuek dioenez, 400 lagunek jotzen dute egunero zerbitzu honetara. Benetako kasu larriak, berriz, laurden bat besterik ez dira. Bere ustez, «lan eta jan azkar egin dugun era berean, oinazeak eta zauriak ere berehalakoan sendatu nahi ditugu».

Gainera, ez dago txanda hartu beharrik supermerkatuan bezala. Ordubetean plakak, analisiak eta eskanerra eginda etxera lasai joan zaitezke. Etxean lasai eta ordubetez ere, Sesma doktoreak aste oro *Urgencias* telesaila ikusten du. Irribarra piztu zaio azkenean gizonari. «Gure eguneroko gertaerak oso zuzen islatzen ditu saio horrek.

Hemen, ordea, ez dugu balaz zauritutako hainbeste jende. Iruñea ez da Chicago». Gripak jota dagoen edadeko jendea; auto istripuetan zauritutakoak; drogak nahasirik hartzen dituzten gazteak; jipoiak jasotzen dituzten emakumezkoak; paperik gabeko inmi-grante txiroak. Gurean horrelakoak dira kasu larriak.

Larrialdien zerbitzuan tentsioa da ezaugarri nagusia. «Kasu larrienetan azkar egin behar da lan, eta egoera arinagoa denean ere ez dugu atsedenik. Jende asko dago gure zain». Horretaz gain, bai eriak baita haien senitartekoak ere lasaitzen nahikoa lan izaten dute. Horrenbestez,

Larrialdien zerbitzuan tentsioa da nagusi. Kasu larrienetan azkar egin behar da lan, eta egoera arinagoa denean ere ez dago atsedenik.

orekaturik egotea ezinbestekoa da lanari neurria hartzeko. Bertatik azaltzen direnei urrutitik begiratzeta. «Halere, zenbaitetan lur jota gelditzen naiz; lehengoan, adibidez, Arrotxapeko hamar urteko haurra esku tartean hiltzitaigun».

Bata zuria kentzen duen bitartean ospitaleko kontuak atzean uztea komenigarria dela esan digu amaitezakoan.

Busca-ren bidez deitu dute eta azkar alde egin behar izan du. Zu ere estu eta larri bazabiltza, 112 telefonora deitu.

Ziria

• Motxorrosolo •

Gezuraren ederra

Txepetxen eta Erramunen artekoa berritu zuen Itxarok itsasuarrarekin. Villasanteri erakutsi esker onak ere, gaia du harrotu. Egia txikiz osaturiko gezurra al da Elizaren paperarena? Abenduko *Maiatz*-ek eztabaida lehertuko ote du? Labritekoak gezurraren ederra agerian utzi zuen. Egia anitz horrelakoxeak balira...

Francisco Almirantearena

URROBI PARTZUERGOKO PRESIDENTEA

«Lanpostuak sortu nahi ditugu jendeak alde egin ez dezan»

Iragan azaroaren 30ean, Urrobiko Partzuergoak ingurua sustatzeko turismo kanpaina bat abiatuko zuela iragarri zuen. Kanpaina azken urteetan egin den lan sakon eta koordinatuaren emaitza da, eta hurrengo urteetan egingo den plan estrategiko baten lehen urratsa. Helburua: Aezkoa eta Erroko herrietan gazteak bertan geratzea, lanpostuak sortuz eta hirietako zerbitzuak bertan eskainiz.

URROBI PARTZUERGOAK ERRO haraneko 9 kontzeju eta Aezkoako 11 udal biltzen ditu. Jai-zubi honetan, partzuergoak inguru honen erakargarritasuna ezagutzera emateko lehen-dabiziko pausoa eman du, bertako ostatu, jatetxe eta udalen arteko elkarlanari esker.

■ Zertan datza prestatu duen turismo ekimena?

Jai hauetan eta Eguberrietan jende asko etorriko da inguru honetara, eta guk hemengo produktuak, paisaiak, basoak, herriak, jatetxeak eta landa-etxeak turistikoki saltzeko kanpaina berezia prestatu dugu. Horretarako, hainbat ekintza antolatu ditugu. Hala, eguraldi ona egiten badu, inguruetatik bisita gidatuak izanen dira, eta eguraldi txarra egiten badu, pilota partidak, antzerkia euskaraz eta beste zenbait ekintza antolatuko ditugu. Bestalde, Arbaiungo eta Irunberriko arroiletara zaldiz joateko aukera ere izanen da. Egun hauetan, gainera, bertako jatetxeekin akordio batera iritsi gara, hemengo produktuak erabiliz 3.500 pezetako edo balio horretatik beherako menuak eskain ditzaten. Azken finean, gure ideia da jendea irakustea inguru hau interesgarria dela.

■ **Azkenaldian badirudi sektore turistikoari garrantzi handiagoa ematen ari zaiola Nafarroako mendialdean.**

Bai. Baina partzuergoak hainbat alderditan lan egiten du. Industria bultzatzen hasi ginen, baina ez dugu horrekin geratu nahi. Turismoa garatu nahi dugu, kulturen eta nekazaritzan edota teknologia berrien esparruan pentsatuta ditugun beste hainbat ekintzarekin batera. Izan ere, gure azken asmoa lanpostuak sortzea da, bertako gazteek Iruñerriara alde egin ez dezaten. Hemengo herrien heriotza eragotzi behar dugu.

■ Biztanleria herrietan sustatzea izan da hasieratik mendialdeko partzuergoaren helburua.

Hala da. Hasiera batean, partzuergoak industria sustatzeko sortu zen. Baina industrialdea egina, eta erakunde honek inguruko udalak koordinatzen dituela aprobetxatuz Turismo Plan Estrategiko bat egitea pentsatu genuen. Ondoren, ekintza zehatzak abiatzea besterik ez genuen eta, horretarako, aurkeztu dugun Ekintza Plana diseinatu genuen.

■ Askotan esan ohi da helburu hau lortzeko men-



● OSKAR MONTERO

dialdean eragozpen garrantzitsu bat dagoela: turismo eragileen arteko koordinazio falta. Zuek lortu al duzue beharrezko koordinazio hori?

Jatetxeek, ostatuak eta sektoreko jendeak, oro har, oso jarrera ona izan dute, proposamenak eta guzti egin baitzizkigute. Esaterako, hemen, neguan, jatetxe guztiak ixten ziren oso jende gutxi igarotzen delako; beraz, hona zetorren bisitariak ez zuen jateko tokirik aurkitzen.

Orain, haien artean egin akordio bati esker, lortu dugu guztiak batera ez ixtea baizik eta txandakatzea, beti baten bat irekita egon dadin.

■ Zeintzuk izan dira ekimen horien guztien emaitzak?

Duela gutxi hasi ginen lan egiten, eta oraindik ezin dugu emaitzez hitz egin. Baina proiektu hauek gazteengan konfiantza eta itxaropena sortu dutela nabaritu dugu. Sortu industrialdean hamar partzela genituen, bederatzi jada saldu ditugu eta bat guretzat gorde dugu, bertan enpresa mintegi bat egin nahi baitugu; baina eskakizuna aurkeztu zuten horrentzat ere. Beraz, argi geratu da lanpostuak baldin badaude gazteria hemen, jaio deneko herrian, gelditzen dela bizitzera. Ordea, lanposturik ez bada, Iruñerantz jotzen dute.

«Partzuergoak zenbait alderditan egiten du lan. Industria bultzatzen hasi ginen, baina ez dugu horrekin geratu nahi. Turismoa garatu nahi dugu, kulturen eta nekazaritzan edota teknologia berrien esparruan pentsatuta ditugun beste hainbat ekintzarekin batera»

soslaia

Urrobi Partzuergoak lehendakari Francisco Almirantearenak 66 urte ditu. Urtebete eta erdi darama Erroko alkatez, eta aurretik alkateordea eta Aurizberri Kontzejuko lehendakaria izan zen.

Pozik dago urte eta erdi honetan «beste zinegotzien laguntzarekin» eginiko lanarekin. Erron zazpi zinegotzi dira, bost independente eta EHko bi. «Ez dira desadostasun handiak sortzen, elkarrekin ondo moldatzen gara, nahiz eta bakoitzak bere usteak eta ideiak izan, guztiak ari baikara geure herrien alde lan egiten».

Legealdia bukatzerako hainbat proiektu burutzea gustatuko litzaioke: «Hornikuntza eta saneamendu sareen hobekuntza bukatzea, Erroko zahar etxea eta industrialdea martxan jartzea, beste industrialde bat egitea eta inguruko zerbitzuak behar bezala koordinatzea».

■ Nafarroako Gobernuak mendialdearen garapenerako dirua ematen du. Aski al dira diru laguntza horiek?

Pozik gaude lortu ditugun diru laguntzekin, baina ez dira aski aurrera atera nahi ditugun proiektu guztietarako. Momentu honetan badirudi Nafarroako Gobernuak ohartu dela mendialdeak sufritzen duen egoeraz eta laguntzen gaitu, batez ere oinarriko zerbitzuen hobekuntzan, hornikuntza- eta saneamendu-sareen kasuan, esaterako. Laguntza gehienak Toki Administrazioari Hiru Urteko Planetatik lortzen ditugu, baina baita Plan Zuzentzaile edota akordio jakinen bitartez. Kontuan izan behar dugu, egun, turismoa herri hauen diru-sartzearen %20 dela, baina gehiago izan daitekeela egoki garatzen bada.

—>Eva Aranguren



Nafar Kronika

Aitor Arotzena

Aupa Julian

Mikel Mindegia Nafarroako aizkolarien txapeldun 51 urtetan. Lehen ere aipatu izan dugu horrek duen meritua, baina kirol honetan goi mailan dauden gehienak berrogei urtetik goitikoak direla eta sekulan ez duela lesio larriegirik izan kontuan hartuz... Nonbait hor sinisten ahal da zubietarrak egiten duena. Eta, Julian Retegirena. Hori ez da errazago sinisten! Mindegiak baino bortz urte gutiago izanik ere, lesio eta istripuen ondorioz bi urte kantxetatik kanpo, hor itzuli zitzaigun, txulo demonio, pilotalekuak betetzera. Bakarren batek erratan zuen «horrek ez dik deus eginen gaur egungo pilotari gazteen aitzinean». Bikotekako partiduez ari ziren, noski. Eta bueltatu eta izerdi ederrak isurarazi dizkio bati baino gehiagori, eta askotan irabazte suertatu, gainera. Baina hori ez zen aski eta lau t'erdiko txapelketan ere izena eman behar zuela adierazi zuen. Hura zurrunbiloa! Batzuen ustez erridukulurik handiena egin behar zuen txapelketa gogor horretan, baina bertze aunitzek duela hiru urte Titineri irabazitako final gogoangarri hura zuten buruan. Ez zen erraza maila hartara ailegatzea, baina Eratsungoarekin, nor fidatu? Gainera, Retegik, zerbait badu, jendea erakartzeko ahalmena da. Bertze partiduetan sarrerak hiru mila pezetan paratu ditu enpresak... bereetan mila durotan eta, halere, pilotalekua jendez gainezka. A zer bazka Asegarcekoentzat!

Hiru pilotari bikain egokitu zaizkio final-laurdeneko ligaxkan, baina hori itxura eman duena Julianek. Lehenbiziko partiduan justu-justuan galdu zuen Unanueren kontra, baina gero, lana gogotik eginda —kantxa gainean minutu gehien egin behar izan dituen pilotaria izan da—, Errandonea eta Nagoreri irabazi die, eta finalerdirako txartela lortu du. Orain Eugiren kontra jokatu behar du, eta hori bertze kontu bat da. Ez da erraza txapelarekin jantzia ikustea, baina nork kenduko digu Julian berriz kantxetan, goi mailan, ikustearen gozamina?

gure aukerak

MUSIKA

- **Otsagi:** Plazatik Salarat taldeak ganberako musikako kontzertua eskainiko du gaur herriko elizan, 19:00etan.
- **Iruñea:** Lluís Llach kataluniarrak Gaiarre antzokian kantatuko du asteartean, 20:00etan.
- **Burlata:** Dank taldeak bere lehen diskoa aurkeztuko du asteartean, 20:30ean, Black Rose tabernan.
- **Iruñea:** Soblind taldea Terminal tabernan izanen da ostegunean, 21:30ean.

ANTZERKIA

- **Garralda:** Bihar, 22:00etatik aurrera, euskaldun eta euskaltzaleentzako afaria eginen dute Etxabarregoa elkarteak, eta, ondoren, Hika taldeak *Arraultza delikatuak* antzezlan eskainiko du.

HITZALDIAK

- **Nabaskoze:** Mendi zikloaren baitan, Javier Garretak *40 años de mi historia* diapositiba emanaldia eskainiko du bihar, 19:30ean, Illon elkarteak.
- **Iruñea:** Pako Aristi idazleak *Venezuela eta Hirugarren Mundua gure butakatxotik* hitzaldia emanen du asteazkenean, 20:00etan, Zaldiko Maldikon.

ERAKUSKETAK

- **Etxarri-Aranatz:** Mireia Ormazabal etxarriarraren argazki erakusketa izanen da kultur etxean igandea arte, bulego eta zine orduetan.
- **Burlata:** *Euskal Herriko zinemaren historia (1896-1998)*, Joakin Azkarate karrikako kultur aretoan, asteartea arte.
- **Barañain:** Argazki lehiaketan sarituak izan direnen bilduma

partikularrak ikusgai dira kultur etxean. Argazkiak, hilaren 22a arte izango dira ikusgai, astelehenean ostiralera. Erakusketa ikusteko ordutegia, aldiz, arratsalde egon da irekita, 18:30etik 20:30era.

- **Atarrabia:** Hilaren 29a arte besta-jira argazki lehiaketan parte hartu zutenen lanak ikus daitezke kultur etxean, astelehenean ostiralera, 17:00etatik 21:00etara.
- **Iruñea:** Jean Diez Otxoa eta Javier Sueskun margolarien lanak daude Pintzel galerian. Margook hilaren 30a arte izanen dira ikusgai.

LEHIAKETAK

- **Eguesibar:** Udalak jaiotza lehiaketa abiatu du. Izena hilaren 20a baino lehen eman behar da, 948-331611 telefonoan. Hiru onenek Eguberrietako saski handi bana eramanen dute.
- **Iruñea:** Sex Haizegoak Narrazio Erotiko Laburren VI. Lehiaketa eta Pintura Erotikoen IV. Lehiaketa antolatu ditu. Bi lehiaketetarako lanak aurkezteko epea urtarrilaren 31n akitzen da. Lehiaketaren xehetasun gehiago jaso nahi dituenak 948-177299 telefonora edo

www.haizegoa.com webgunera jo dezake.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Eguberriak direla eta, San Fermin peña Arrosadiko familia behartsuentzako jostailuak eta liburuak biltzen ari da bere lokaletan (Gelbenzu, 13-15) edo Euskadiko Kutzaren erabilera anitzeko aretoan, astelehenean ostegunera, 18:00etatik 20:00etara. Informazio gehiago 948-239448 telefonoan.

JOXE LACALLE



Holaxe, garbi-garbi

«Erratza izanen banu / erratza izanen banu / erratza izanen banu / zenbat eta zenbat gauza eskobatu-ko nituzkeen». Zera, euskaraz ez da gaztelaniaz bezain ongi gelditzen, baina eman dezagun irudiko langilea Los Sirex talde espainiarraren kanta gogoangarria abesten ari dela, Iruñeko udaletxe aitzineko espaloia eskobatzeko bitartean. Zoruari distira ateratzearaino ari da jo ta ke erratzarekin. Eta ez zen gutiagorako, handik San Saturninok pasatu behar zuen eta. Dena dela, ez dirudi oso zentzuzkoa bustirik den zorua erratzaz garbitzeak. Baina ez dezagun errugabetasun presuntzioa urratu. Auskalo nork eman zion agindua.